

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

Arkitekto plaza bat betetzeko hautaketa prozesuari dagokion oposizio aldiko lehen ariketaren data zehaztea

Arabako Lautadako Kuadrillako funtzionarioen plantillan hutsik dagoen arkitekto lanpostu bat betetzeko 2020ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez, argitara ematen da noiz egingo den oposizio aldiko lehen ariketa, denek jakin dezaten.

Hautaketa prozesuan onartutako izangaiei dei egiten zaie oposizioko lehenengo ariketa egiteko. Ariketa hori 2024ko ekainaren 5ean egingo da, 10:00etan, Aguraingo Udaletxean (Manu Yanke aretoa), Aguraingo Zapatari kaleko 15. zenbakian.

Izangaiek agiri hauetakoren bat eraman behar dute probara, identifikatu ahal izateko: NANA, pasaporte edo gidabaimena, edo agiri baliokidea atzerritarren kasuan. Horrez gain, boligrafoa ere eraman behar dute.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta epaimahai kalifikatzaileak ebaluatuko ditu.

Epaimahai kalifikatzaileak Interneteko helbide honetan emango du hurrengo ariketen berri: <https://www.arabakolautada.eus/>.

Agurain, 2024ko apirilaren 16a

Lehendakaria

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE